

OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko ekainaren hiruko gaueko bederatziak eta hamabost minutu direnean, bildu dira, ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti Zinegotzia.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Luis Arzallus Amenabar- Zinegotzia ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

2010EKO APIRILAREN 22 ETA APIRILAREN 29KO AKTEN ONARPENAK, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2.010eko apirilaren 22 eta apirilaren 29ko akten berri ematen du eta zinegotziek aho batez onartzen dituzte.

BIGARREN PUNTUA:

2009KO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak aipatzen du Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia eman diola Kontu Orokorrari eta indarrean dagoen legediak ezarritakoa beteaz, jendaurreko erakusketan jarri eta alegaziorik izan ez denez, Kontu Orokorra onartzeko moduan dagoela.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Bittor Astigarraga Zugasti eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: Jose Luis Albisua Lasa.

Ondoren, Koldok aipatzen du, guzti hau dena Udalaren gestio txar baten ondorioz etorri dela.

HIRUGARREN PUNTUA:

2009-2012 PLAN EKONOMIKOAREN EGUNERAKETAREN BERRI EMATEA.

Idazkariak 2009-2012 plan ekonomikoaren eguneraketaren berri ematen du, Plan berri hau barneratzen duten dokumentuen berri emanez.

Zinegotzi guztiak jakinaren gainean geratzen dira.

LAUGARREN PUNTUA:

EUSKERAREN ERABILERA AREAGOTZEKO ERREZILGO UDALAREN ETA GIPUZKOA DONOSTIA KUTXAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak euskeraren erabilera areagotzeko Errezilgo Udalaren eta Gipuzkoa Donostia Kutxaren arteko hitzarmenaren berri ematen du.

1.- Elkarren arteko harremanak, ahozkoak eta idatzizkoak, euskaraz izango dira ahal den guztietan. Horretarako, beharrezko diren baliabideak jarriko dituzte.

2.- Gipuzkoa Donostia Kutxa, bere aldetik XXXko bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan euskararen presentzia ugaltzen ahalegin berezia egitera konprometitzen da.

3.- Helburu hori betetzeko, besteak beste honako neurri zehatz hauek hartuko ditu Gipuzkoa Donostia Kutxak:

3.1.-Ahalegin berezia egingo du bulego hauetako langileak gai izan daitezen lan mota guztietan euskaraz jarduteko. Helburu honetara bideratuko dira, bereziki, etengabeko trebakuntza eta laguntzarako tresna informatikoak. Era berean, bulego hauetan eskaintzen dituen zerbitzu guztietarako kontratatzen diren langile berriak, finko zein aldi baterakoak, elebidunak izango dira.

3.2.- Bezeroari lehen hitza euskaraz egingo zaio.

3.3.- Produktu berri bat kontratatzerako datorren bezeroari eskaintza euskaraz egingo zaio eta, kontraktorik ezean, ondorengo azalpenak ere bai. Eta, eragiketen euskarri diren dokumentuak, dagoeneko elebitan dituen gain sor daitezkeen berriak ere, gutxienez elebitan emateko konpromisoa hartzen du Gipuzkoa Donostia Kutxak.

3.4.- Bezeroak nabarmen euskara ez dakien kasuan izan ezik, zordunketa- eta kreditu-txartelak, nahiz bestelako txartel guztiak euskaraz sortuko dira.

3.5.- Urtean zehar ematen diren zerbitzu bereziak –errenta aitortpenaren kanpaina, esaterako- euskaraz izan daitezzen, beharrezkoak diren baliabideak jarriko dira langileen zein herritarren eskura.

3.6.- Gipuzkoa Donostia Kutzak, kanpainen bidez, beren zerbitzuak euskaraz erabiltzeko deia egingo die bezeroei.

3.7.- Entitatearen kutzazainen pantailetan azaltzen den sarrerako mezu-sorta euskaraz izango da.

3.8.- XXXko sukurtsaletako kartelak, EUSTATen azken erroldan euskaldunak eta ia euskaldunak epigrafeen batura populazioaren % 50 edo gehiago denez, euskarazko bertsioan jarriko dira, bai barrura eta bai kanpoaldera begira. Sukurtsalek bestelako argitalpenetan egiten duten publizitatea (aldizkari, jai egitarau, eta abarretan) euskaraz jarriko da, beti ere euskararen kalitatea zainduz. Esku orriak elebitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

edo

3.8.- XXXko sukurtsaletako kartelak, EUSTATen azken erroldan *euskaldunak* eta ia *euskaldunak* epigrafeen batura populazioaren % 50 baino gutxiago denez, bi heren (2/3) euskarazko bertsioan jarriko dira, bai barrura eta bai kanpoaldera begira. Sukurtsalek bestelako argitalpenetan egiten duten publizitatea (aldizkari, jai egitarau, eta abarretan) gutxienez bi heren (2/3) euskaraz jarriko da, beti ere euskararen kalitatea zainduz.

Esku orriak elebitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

3.9.- Sukurtsaletan bertan idatzitako dokumentuetan euskarari lehentasuna emango zaio. Erabiltzen diren dokumentu eredu eta inprimakiak elebitan egongo dira eta euskaraz beteko dira. Eta eragiketetan agertuko diren testuetan, euskara lehenetsiko da, bezeroak espresuki kontrakoa ez badio. XXXko udalak irizpide bera erabiliko du, berari dagozkion eginkizunetan.

3.10.- Leku izenen kasuan, euskarazko izen ofizialak erabiliko dira dokumentu guztietan. Udalak zerrenda ofiziala emango dio Gipuzkoa Donostia Kutzari.

3.11.- Gipuzkoa Donostia Kutzak sortzen dituen publizitate slogan eta gisakoak euskaraz sortuko dira, gaztelaniaz sortutakoen itzulpen soil eta kaxkarrak izan ez daitezzen.

3.12.- Gipuzkoa Donostia Kutzak, hitzarmen honen epe amaiera iristerako, XXXeko bezero euskaldunei helarazten dizkien idatzizko informazio, eragiketa eta gainerako guztiak euskaraz bakarrik helarazteko proposamena egingo die. Gainerakoei idatzi elebidunak bidaliko dizkie, eta euskarak lehentasuna izango du horietan. Prozedura hau txertatu egingo da bezero berriak hartzeko protokoloan.

3.13.- Gipuzkoa Donostia Kutzak informazioa zabaltzeko eta eragiketak egiteko sortutako banka elektronikoko zerbitzuetan ere euskarazko aukerak bermatzen eta lehenesten jarraituko du.

4.- XXXko udala, bere aldetik, hitzarmen honen edukia eta bere garapenaren berri herritarrei adierazteaz arduratuko da.

5.- Hitzarmen hau eraginkorra izan dadin, Jarraipen Batzorde bat jarriko dute martxan sinatzaileok, gutxienez urtean behin bilduko dena, goian aipatutako helburuak lortu eta emaitzak aztertzeko. Jarraipen Batzordea eskualde mailakoa izan dadin hobesten dute bi aldeek.

6.- Jarraipen Batzordea arduratuko da Gipuzkoa Donostia Kutzaren XXXeko bulegoetan euskararen ahozko zein idatzizko erabileraren neurketa bideratzeaz, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak propio zehaztutako prozedura erabiliz.

7.- Hitzarmen honen iraunaldia bost urtekoa da; epe hori beste bost urtez luzatuko da bi aldeetakoren batek, edo biek, idatziz bertan behera uzteko borondatea azaltzen ez badute gutxienez ere iraunaldia amaitu baino hilabete lehenago.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Berrondo Lanceta eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik: ez dago.

Beraz, euskeraren erabilera areagotzeko Errezilgo Udalaren eta Gipuzkoa Donostia Kutzaren arteko hitzarmena onartu da.

BOSTGARREN PUNTUA:
SAN ANTONIO JAIETARAKO EGITARAU ETA AURREKONTUAREN
ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Iñaki Labaka zinegotziak dio aurtengo San Antonio jaietarako aurrekontua 6.170 €-takoa dela, ondorengo kontzeptutan banatuta:

- 1.- Borondegia: 170 €
- 2.- Haur jolasak: 300 €
- 3.- Kupela: 1.150 €
- 4.- Herri krosa: 150 €
- 5.- Laja, Narbaiza eta Alabier: 600 €
- 6.- Hamaiketakoa: 500 €
- 7.- Lidia: 200 €
- 8.- Gorriti: 450 €
- 9.- Dantzariak (txistularia): 250 €
- 10.- Herri kirolak: 2.000 €
- 11.- Josune eta Leire: 150 €
- 12.- Besteak: 250 €

GUZTIRA- 6.170 €

Aurrekontu prestatua: 6.500 €

San Antonio jaiak ekainaren 11, 12 eta 13an izango dira gehi ekainaren 19an Akerra elkarteak antolatzen duen usakume tiraketa.

Ekainaren 11an, ostiralean, txupinazoa, haur-jolasak buru haundiekin, herri afaria eta Kupela taldea.

Ekainaren 12an, larunbatean, haur eta gazteentzako herri-krossa, arratsaldean triki poteoa-desafio-poteoa eta gauean afaria txosnako taldeak antolatuta eta ondoren, Laja II, Narbaiza eta Alabier.

Ekainaren 13an, igandean San Antonio egunean, meza, hamaiketakoa, bertsolariak eta trikitalariak. Ondoren, Gorriti eta bere abereak. Arratsaldean, herriko

dantzariak eskolako patioan eta gero, herri-kirolak eskolako patioan Josune eta Leire trikitilariak alaiturik Gipuzkoako harri txikien txapelketa eta Gipuzkoako orga txapelketa.

Beraz, Alkateak ondoko proposamena onartzea proposatzen du:

Lehen.- 2010 ekitaldiko San Antonio jaietako egitaraua eta aurrekontua onartzea.

Bigarrena.- 2010 ekitaldiko aurrekontuaren 1.0000.226.452.00.06 kontu sailari 6.500 euro egozte.

Hirugarrena.- Jaietako egitarauari zabalpena ematea esku programen bitartez, Hitza aldizkarian argitaratuz eta herri irratia bitartez.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Berrondo Lanceta eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik:ez dago.

Beraz, San Antonio jaietako aurrekontua eta egitaraua onartuta geratzen dira.

SEIGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.

Alkateak komentatzen du, Koldo Arzallus Amenabar zinegotziak eskubide guztien alde, Euskal Presoak Euskal Herriaren inguruan ondoren aipatzen den mozioa aurkeztu duela:

1.- Indarrean dagoen espetxe politikaren ondorioz, presoek oinarritzko eskubideak urratuak dira. Ondorioz, Euskal Preso guztiak, beraien eskubideen jabe, euskal herritarak izan daitezkeen eskatzen dugu.

2.- Era berean, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta zigorra beteta dutenak berehala aska ditzatela eskatzen diogu gobernu espainolari.

3.- Udal honek, ehunaka herritarrek eta taldek babesturiko Pausoz pauso ekimena debekatu izana salatzen du, presoek aldeko elkartasuna eta babesa ez baitira delitu. Apirilaren 24an burutu behar zen ekimen honen debekuari erantzunez, ekainaren 12an “eskubide guztien jabe, euskal presoak Euskal Herrira” lemapean herri guztietan

burutuko diren elkarretaratzeak babesten ditu. Errezilen iluntzeko 22:30etan goiko plazan izango da.

4.- Adierazpen honen berri, herritarrei bando bidez eta hedabideei helaraztea.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Jose Luis Albisua Lasa.
2. Abstentzioak: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Luis Berrondo Lanceta eta Bittor Astigarraga Zugasti.
3. Aurkako boturik:ez dago.

ZAZPIGARREN PUNTUA: ORDAINAGIRIEN ONARPENA.

Ez dago ordainagiririk.

ZORTZIGARREN PUNTUA: ALKATETZA BERRIA ETA EBAZPENAK.

- 1.- Senda belarren ikastaro bat emateko areto txikia erabiltzeko baimena ematea.
- 2.- Rally Sprint-en arira, herriko zenbait gazteei txosna jartzeko baimena ematea.
- 3.- Hiritar Lurzoruko 4/1 H.I.B. unitatean garajeen ihardueraren legeztatenerako baimen eskaera.
- 4.- Igogailuko obren zuzendaritzaren esleipena.
- 5.- San Martin kalea 31 zenbakiaren ezagutuko den etxebizitzaren deskribapena.
- 6.- HAUTANET aplikazioaren bitartez harremanetarako Maria Etxeberria izendatzea.
- 7.- 2010eko apirileko fakturen onarpena.
- 8.- Kreditu aldaketa gehikuntzen modalitatean espedienteari hasiera ematea.
- 9.- C-8227-BDP matrikuladun ibilgailuaren gaineko zergaren zati proportzionalaren itzulera.

10.- C-2406-BNZ matrikuladun ibilgailuaren gaineko zergaren zati proportzionalaren itzulera.

11.- 4694-GPC matrikuladun ibilgailuaren gaineko zergaren exentzioa baliogabetzea eta aldi berean 3027-GVC ibilgailuaren gaineko zergaren exentzioa onartzea.

12.- 20066-10-0003 zenbakiko lizentzia ematea Rottweiler arrazakoa den Alper izeneko txakurra edukitzeko.

13.- Errezilgo Hiritar Lurzoruko 4/1 H.I.B. unitatean eraikitako 6 etxebizitzan lehen erabilerako baimena ematea.

14.- Serotegi etxeko fatxadan zenbait lan egiteko baimena ematea.

15.- 4800-BRC matrikuladun ibilgailuaren 2010.urteko zergaren itzulera.

16.- Igogailuko Seguritate Planaren onarpena.

17.- Bere jabegoko txabola baten erretila lanak egiteko baimena ematea.

18.- Zabale baserrian erretila lanak egiteko baimena ematea.

19.- Hiritar Lurzoruko 4/1 H.I.B. unitatean kokaturiko garajeen iharduera legezatzeko espedientearen barruan, obra eta iharduera baimenak ematea.

20.- Kreditu aldaketa transferentzien modalitatean onartzea.

21.- 1480-BVP matrikuladun ibilgailuari dagokion 2010 urteko zergaren itzulera.

22.- Errezilgo Akerra elkarteari 2010eko ekainaren 19an “tiro al pichón” lehiaketa egiteko baimena ematea.

23.- 2010eko maiatzeko fakturen onarpena.

BEDERATZIGARREN PUNTUA: GALDERAK ETA ERREGUAK.

1.- Jose Luis Albisuak dio, herriko deposituko goi aldetik datozen urak trabatuta geratzen direla errepidean espaloia kanpoan geratzen delako eta arrazoia begiratu egin beharko litzatekeela.

2.- Alkateak dio, turismoaren inguruko web orrialde berri bat egiteko proiektua dagoela, Oriotik hasi eta Azkoitiaraino, Beizama eta Errezil ere barneratuaz.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatzia eta berrogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.